

Ana Vadillok The Bugatti Trust saria irabazi du Industria Produktuen Diseinuan

2007/05/24

Ana Vadillok, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko diseinuko ikasle ohiak, aurtan, Coventry Unibertsitatean, Industrial Product Design-eko MD ikasketak egin ditu, eta **The Bugatti Trust**-ek urtero master horretan egindako lan onenei ematen dien lehen saria lortu du.

Vadillok **“Urpean komunikatzeko aparatua”** sortu du; aparatuaren bidez asmoa da, batetik, urpekariak elkarren artean komunikatzea, eta bestetik, kanpokoekin harremanetan jartzea, modu erraz eta azkarrean. Eskumuturrean lotutako aparatua bati esker, pantaila baten bidez, aukera izango dute programatutako ibilbidea ikusteaz gain, argazkiak ateratzeko, puntu zehatz bat argiztatzeko eta beste hainbat gauza egiteko.

